

Zapata berriak jantzita, herriko kulturaren bidea urratzen jarraitzeko

Atzo inauguratu zuten Erribera kulturgune berria, Astigarragan, herriko makina bat kultur talde eta artistak jantzitako ekitaldi bereziarekin.

ASTIGARRAGA KULTURA

Kontxa Etxeberria plazan elkartuta eman zioten ongietorri beroa atzo, makina bat astigartarrek, Erribera kulturgune berriari. Herriko kultur taldeek eta artistek jantzi zuten inaugurazio ekitaldi berezia, doinuak, kolorez, mugimenduz eta hitzez; eta guztiek jantzi zutena, eszenatokira igo zirenek zein publikoaren aulkietan eseri zirenek, izan ziren zapata berriak.

Zapata berri sinbolikoak, kulturgunearen islada, balioko dutenak herriko kulturaren bidea urratzen jarraitzeko. Mezu horrekin egin zuten bat atzokoan, partehartzaileek.

Berriari kaixo esaten baino, zaharrari agur esaten hasi zuten eguna, astigartarrek; eta Kontxaeneako kultur etxe zaharrari azken bisita egin ondoren, agurra ere kantatu zioten eguerdian. Handik abiatu ziren, zapata be-



Astigar dantza taldea bezala, herriko makina bat talde igo ziren eszenatokira atzo, Erriberari ongietorria ematera.

rriekin dagoeneko, Erriberari ongietorria ematera; eta bertso, txaranga, irakurketa, batukada, gimnasia saio zein kantuen artean, izan zen bat berezia, kulturgune berriari eskainitakoa. Benito Lertxundiren Erribera abestiari, honako hitzak jarri dizkio Agin Laburu bertsolariak, atzo denek kantatu zituztenak:

*Erribera Erribera...
ez haiz lehengo herri bera
hiri haundien pare jarri gera.
Jaurerri zaharren berri*

*izan den hire lurretan,
lanik ez human ordaintzen
ta urretan.*

*Donosti aldera, noski
tranbian, oinez ta astoz...
lehenago joandakoak
bueltan datoz.*

*Urumearen ertzean
lehengo baserri lanak.
Urtarorik ez din orain
porlanak.*

*Santiomendiren itzal
ta Urumearen ura
bego higan arbasoen
amets hura.*

Kanpoan eskainitako emanaldi guztiek, segida izan zuten gero, Erriberaren barruan. Izan ere, ipuinekin, bertsoekin, dantza saioekin zein musika eta kantu emanaldiekin lagunduta erakutsi zizkieten kulturgunearen espazioak, bisitariei.

Gaur ere egin daiteke bisita, 11:00etan eta 12:00etan; eta presatatu duten dokumentala jarriko dute 17:00etan eta 18:30etan. Guztietarako, hori bai, aldezturik hartu behar dira gonbidapenak: astigarraga.eus. **K**

Aerobik-fitness eta yoga ikastaroetan, bihartik aukera

EREÑOTZU AUZO UDALA

Bi ikastaro eskainiko ditu Ereñotzuko Auzo Udalak, ikasurte honetan ere: yoga, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:30etara; eta aerobik-fitness, astelehen eta asteazkenetan, 17:30etatik 18:30etara. Bietan, bihar zabalduko dute aurrematrikula egiteko epea, ostiralera bitarte, Auzo Udaleko bulegoan: astelehenean 09:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta gainerako egunetan, 09:00etatik 14:00etara.

Jarduera guztiak, bertan behera

HERNANI XALAPARTA ELKARTEA

Xalaparta elkarteak jakinarazi du, bertan behera utzi dituela bere jarduera guztiak, urte bukaerara bitarte: Aranoko martxa eta Sagardo Lehiaketa. Datorren urtera atzeratu dute, bestalde, Carlos Sanchiz Hernaniar Bikain izendatzeko ekitaldia.

Ezohiko batzarra, irailaren 21ean

HERNANI DOBERA

Ezohiko batzar orokorra deitu du Dobera Euskara Elkarteak, irailaren 21erako. Arratsaldeko 18:30etan izango da, Biteriko ikastaro gelan; eta bertan egingo dute zuzendaritza talde berriaren aurkezpena eta eraketa.

Egoitzako loteria, Leten aurtan

HERNANI GOIZ EGUZKIK

Gabonetako loteria eskainiko du Goiz Eguzkik, aurtan ere; baina ezingo dute egoitzan bertan saldu, aurreko urteotan bezala. Horregatik, nahi duten bazkideek, Lete loteria administrazioan (Urbietako kalea) daukate eskuragarri, abenduaren 18ra arte. 97860 da zenbakia, eta dezimo osoa erosi behar da.



Xuira taldearen akrobaziekin gozatzeko ere izan zen aukera, inaugurazioan.



Emanaldi ezberdinekin erakutsi zizkieten kulturguneko espazioak, bisitariei.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfn. 943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

* Zerbitzu partikularrak eta aseratu etxeekin

* Erransketa eta lekualdatzeak

* Beilatokiak

* Eskelak, korroak...

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga

943 55 38 05

OGI BERRI OKINDEGIA

Rosa Morla

Kale Nagusia, 31

20115 ASTIGARRAGA

Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314

rmorlaluengo@yahoo.es

Allianz ASEGURURAK

bitzita -
letipusak -
ibilgailuek -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar agentzia

Nagusia, 13

Tel.: 943 55 73 26

Faxa: 943 33 57 71

